

2010-07-20ko EZOHIKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta hamargarren urteko uztailaren hogeian, arratsaldeko 20:00ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohiko batzarra egin du Udalbatzak, Marimi Ugalde Zabala alkatea buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Eugenio Loidi jauna, Jose Luis Olano Zubeldia jauna, eta Agustin Zubeldia Iraola jauna.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute: Gregorio Lasa Etxezarreta eta Aitor Lasa Olalde jaunak.

Udaleko idazkariak, Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea bazegoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

LEHENBIZIKO GAIA

AURREKO AKTA ONARTZEA (10-03-16).- 2010eko martxoaren 16ko ezohiko saioaren aktaren zirriborroa ikusita, udalbatzak aho batez onartzea erabaki du.

BIGARREN GAIA

2009. EKITALDIKO UDALEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN KONTUA EMATEA.

2010eko ekainaren 22ko 76 zenbakidun Alkatearen Dekretuaren berri ematen da:

“2009ko ekonomia-ekitaldiko Udalaren Aurrekontuaren likidazioaren berri eman dio Alkateak Udalbatzari, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 49.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, Alkatetzak Dekretu bidez onartuta eta honako hau esaten duena:

“Udal honen 2009ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak egin duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2009ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2009-12-31n:		999.259,68
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2009-12-31n:		120.935,88
Aurrekontuko zordunak :	113.443,48	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	7.492,40	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2009-12-31n:		602.376,74
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	28.400,34	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	573.271,17	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	705,23	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		517.818,82
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):		517.818,82
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		- 9.205,47
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		508.613,35
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		284.748,30
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:		0,00
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:		123.873,18
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:		0,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):		408.621,48
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:		0,00
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:		39.915,02
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):		39.915,02

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran."

Halaber, Idazkari-kontuartaileak txosten bat egin du adieraziz Udala Finantza-orekan dagoela, Aurrekontu Egonkortasunaren legearen arabera."

Hau izapide-egintza bat da.

HIRUGARREN GAIA

MAIATZAREN 20KO 8/2010 ERREGE LEGE DEKRETUTIK SORTUTAKO DEFIZITA MURRIZTEKO NEURRIAK APLIKATZEARI BURUZKO PROPOSAMENA.

Gai hau mahai gainean uzten da.

LAUGARREN GAIA

EZGAITASUNA DUTENEI UDALAK ANTOLATUTAKO EKINTZETARAKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEKO ONARTZEAREN PROPOSAMENA.

Udal honek Diru-laguntzen Emakida arautzen duen Udal Ordenantza aldatu nahi du, 4. Eranskin berri bat txertatuz, Udalak antolatutako jardueretan ezintasunak dituzten pertsonentzako diru-laguntzak arautzeko.

Hori dela eta, Udalbatzak aho batez honako hau onartu du:

1º.-Aipatutako aldaketa onartzea.

2º.-Espedientea jendaurrean jartzea eta interesatuei entzunaldiak egitea, 30 egun balioduneko epeaz gutxienez, iradokizunak eta erreklamazioak jarri ahal izateko.

3º.-Erreklamazio edo iradokizunik egon ez bada, behin betiko onartuko dela iritziko zaio, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratuko da.

Bestela, epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunak erabaki eta Udalbatzak behin betiko onartuko du.

BOSGARREN GAIA

TRAFIKO ORDENANTZAREN ALDAKETAREN PROPOSAMENA.

Udal honek Zirkulazioa arautzen duen Udal Ordenantza aldatu nahi du, San Migel Plazari oinezkoentzako erabilera ematea erregulatzeko.

Hori dela eta, Udalbatzak aho batez honako hau onartu du:

1º.-Aipatutako aldaketa onartzea.

2º.-Espedientea jendaurrean jartzea eta interesatuei entzunaldiak egitea, 30 egun balioduneko epeaz gutxienez, iradokizunak eta erreklamazioak jarri ahal izateko.

3º.-Erreklamazio edo iradokizunik egon ez bada, behin betiko onartuko dela iritziko zaio, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratuko da.

Bestela, epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunak erabaki eta Udalbatzak behin betiko onartuko du.

SEIGARREN GAIA

UDAL LUDOTEKA ERABILTZEKO IRURAKO IKASTOLAREN ESKAERA.

Irurako Ikastola irakaskuntza zentroak Udalari eskatu dio ludotekako udal lokalaren erabilera lagatzea, 7,30etik 9,00etara, astelehenetik ostiralera, eskola horretako ikasleak zaintzeko gurasoek uzten dituztenean, eskolak hasi arte eta 2010-2011 ikasturterako.

Hori dela eta, Udalbatzak aho batez honako hau onartu du:

Erabilera lagapena baimentzea, hori arautzeko Hitzarmena sinatu ostean, eta alkate-lehendakariak, Udalaren izenean eta ordezkariak, hitzarmena sinatzeko baimena eman du.”

ZAZPIGARREN GAIA

ERAIKINEN MANTENUA ETA BESTE GASTU BATZUK ORDAINTZEKO DIRU-LAGUNTZAREN BIDEZ HITZARMENA ONARTZEKO IRURAKO IKASTOLAKO ESKAERA.

Irurako Ikastola irakaskuntza zentroak Irurako Udalarekin hitzarmena sinatzea eskatu du, eta, horren arabera, urtean 35.000 euroko zuzeneko diru-laguntza emango litzaioke 10 urtez, Irurako biztanleen hezkuntza bermatzeko eta Ikastolako eskola zentroaren mantentze lanetarako, garbiketarako eta argindar, ur eta berogailu gastuetarako. Gainera, beste udal eraikuntza batzuen eta ikastolako lokalen erabilera arautuko litzateke.

Hori dela eta, eztabaidatu ostean, Udalbatzak aho batez honako hauek adostu ditu:

Lehena.- Irurako Ikastolari gogoraraztea indarrean dagoela eskritura publikoan jasotako 2007-05-22ko akordioa. Horren bidez, Udalak ikastolari doan laga zion eskola zentroa eraikitzeko lursailaren azalera eskubidea eta inbertsioa zuzenean diruz lagundu zen, hau da, urtean 74.966,60 euro, hamar urtez.

Hortaz eta ahalegin ekonomikoa egiten ari den Udal honek esparru honetan ikusita, hitzarmen eskaera horri uko egitea.

Bigarrena.-Adieraztea, aipatutako akordio horretaz gain, Udalak udal eskola zaharren lokalak Irurako Ikastolari lagatzen jarraituko diola, eskolaren jardueretako, eta mantentze, kontserbazio eta konponketa lanak osorik ordainduko dituela.

Era berean, Udalak Irurako Ikastolarekin lankidetzan jarraituko du, hark sustatutako ekitaldien ospakizunetan (Garagardo Festa, etab.).

ZORTZIGARREN GAIA

IRURAKO IKASLEEN GASTUAK FINANTZATZEKO ANOETAKO HERRI IKASTOLAREN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.

Anoetako Herri Ikastolak diru-laguntza eskaera egin du, bertara doazen Irurako ikasleen gastua finantzatzeko, batik bat DBHn.

Hori ikusita, Udalak adierazi du Herri Irakaskuntzaren Mankomunitatea desegin arte Udalak eskola zentroaren mantentze gastuak finantzatzen zituela Anoetako Udalarekin batera. Mankomunitatea desegiteko arrazoietakoa izan zen Irurako udalerrian eskola zentro hitzartu bat ezarri zela, Irurako ikasleei HHE ziklo osoa eskaintzeko, eta, horretarako, Udalak ahalegin ekonomiko handia egin behar zuela eta egin beharko duela.

Hortaz eta ahalegin ekonomikoa egiten ari den Udal honek hezkuntza alorrean eta bere udalerrian ikusita, udalbatzak aho batez adostu du aurkeztutako diru-laguntza eskaera ukatzea.

BEDERATZIGARREN GAIA

IZAN FUNDAZIOAREN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.

Izan Fundazioak eskatzen du diru-laguntza ematea Gizakia Helburu eta Norbera programak gauzatzeko.

Hori dela eta, Udalbatzak aho batez onartzen du 110€ko laguntza ematea eta zuzenean ordaintzea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

HAMARGARREN GAIA

DONOSTIAKO ADMINISTRAZIO AUZIETARAKO 1. EPAITEGIAK, JOSÉ I. LASA ARSUAGA UDAL LANGILEAK HALA ESKATUTA IZAPIDETUTAKO 102/2008 ZENBAKIDUN ERREKURTSOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Donostiako Administrazio Auzietarako 1. Epaitegiak, José I. Lasa Arsuaga udal langileak hala eskatuta izapidetutako 102/2008 zenbakidun prozesuari dagokionez, jakinarazten du epai irmoa hartu dela, eta, horren bidez, errekurtsoa osorik onartzen dela eta errekurtsogileak eskubidea duela %1eko igoera jasotzeko, 2007ko Estatu Aurrekontu Orokorren gaineko abenduaren 28ko 42/2006 Legearen 21.4. artikulua ezarri bezala. Hortaz, Udal honi agintzen zaio adierazpen hori onartu eta betetzea.

Zenbateko hori 2007 urtearen kasuan 361,83€ dira, idazkari kontu-hartzailearen txostenaren arabera.

Hori dela eta, Udalbatzak aho batez honako hau onartu du:

Epai hori betetzea eta errekurtsogileari adierazitako zenbatekoa ordaintzea.

HAMAİKAGARREN GAIA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TOKIKO IRAUNKORTASUNERAKO KONPROMISOA, UDALSAREA 21 IRAUNKORTASUNERAKO EUSKAL UDALERRIEN SAREA FINKATZEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Irurako Udalak Aalborg-eko Ituna sinatu du, eta udalerrian Tokiko Agenda 21 programa martxan jartzeko konpromisoa hartu du.

Hala, tokiko konpromisoaren bidez iraunkortasun globalaren alde egiteko etengabeko hobekuntza-prozesua jarri du abian. Eginkizun horretan, udaletako Tokiko Agenda 21ak indartzea helburu duen Sareko kide izateak dakartzan onurak azpimarratzen ditu Udalak.

Hargatik, Irurako Udalak atxikimendu honetan adierazitako konpromisoa hartzea erabaki du.

Aurrez adierazitakoarekin bat, Irurako Udalak ADIERAZTEN DU:

“EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TOKIKO IRAUNKORTASUNERAKO KONPROMISOA; UDALSAREA 21 IRAUNKORTASUNERAKO EUSKAL UDALERRIEN SAREA FINKATZEA” dokumentuari atxikimendua agertzen diola bere gain hartzen dituela konpromiso horretatik eratorritako erantzukizunak”.

HAMABIGARREN GAIA
DIRU-LAGUNTZA BATZUEN ESKAERA.

Aurkeztutako diru-laguntza eskaerak, dauden hitzarmenak eta euskara sailaren txostena ikusita, Udalbatzak aho batez onartu du diru-laguntza hauek ematea:

- Ibilaldia: 195€
- Herri Urrats: 285€
- Nafarroa Oinez: 195€
- Kilometroak: 195€
- Araba Euskaraz: 195€
- Kontseilua: 300€
- Hitza: 4.254 €
- Txolarre Irratia: 2.127€
- Galtzaundi: 2.783€

Era berean, laguntza horiek ordainduko dira; betiere, diru-laguntzen udal araudiak ezarritako eskakizun formalak betetzen badituzte.

HAMAHIRUGARREN GAIA
EUSKAL FONDOAREN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.

Gai hau mahai gainean usten da, dokumentazioa aztertu arte.

HAMALAU GARREN GAIA

GALDE ERREGUAK.-

Galde-erreguen tartean gai hauek aztertu dira:

a) Alkateak azaltzen du, Etxebizitza Tasatuen eskaeraren Erregistroa ireki dela eta eskaerak hasi direla aurkezten.

b) Alkateak azaltzen du, Trinketeko berrikuntzari buruz izan direla Pilota Espainolako Federazioaren arduradunekin eta datorren astean izango direla Gipuzkoako Foru arduradunekin.

c) Alkateak azaltzen du, Parkea eta errepidearen artean dagoen sarea puskatuta dagoela eta Diputazioak hitzartu du, konponduko duela azkar. Antizarataren pantailak geroago jarriko dituela oso garestiak direlako.

d) Eta bukatzeko, Alkateak esaten du, eskerrak TDT azpiegitura Itelazpik martxan jarri duen.....

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, 21:30ean eman da amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta idazkari nauzuen honek dena EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA

IDAZKARIA